

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesusa Aranzeta Gisasola

*Eibar,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea



Biografia



Jesuseta Aranzeta Eibarko Aginaga auzoko Oregi Zar baserrian jaio zen eta bizitza guztian bizi izan da baserri berdinean. Egoibarrako "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen, baserri ondoan duten San Migel Txiki edo San Migel Oregizar santutxuarengatik. Bere senar [Juan Agirregomezkortak](#) ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Zintak

EIB-701

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-11-11
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. San Migel Txiki santutxoa Aginaga auzoan

- **Erref:** EIB-701/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Oregizar baserria Eibarren dago, nahiz eta lursail gehiago dituen Gipuzkoan. Santutxo bat daukate baserri parean, "San Migel Txiki" izenekoa. "San Migel Haundi", Aginagako auzoko elizari deitzen diote.</p>

2. San Migel Txiki santutxoaren kokapena

- **Erref:** EIB-701/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Garai batean Oregizar baserria pixka bat beherago zegoen baina santutxoa beti leku berdinean egon da. Jende asko hurbiltzen da San Migelen irudia ikustera.</p>

3. San Migel Txikiren jabea Oregizar baserria da I

- **Erref:** EIB-701/004
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Eibarko Udalak museora eraman nahi izan zuen San Migelen irudia, baina Jesusaren aita kontra agertu zen. 1941ean haizeak santutxoaren teilatua eraman zuen eta konponketetarako ez zuten laguntzarik jaso. Aginaga auzoan estimazio handia diote San Migeli. Gerratean ez zen hildakorik egon auzoan.</p>

4. Prozesioen hasiera San Migel Txiki santutxotik

- **Erref:** EIB-701/005
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>San Migel Txiki santutuxoa izan da letania eta prozesioen hasiera lekua Aginaga auzoan. Aste Santuan prozesioak nolakoak ziren azaltzen dute. Askok aldatu da fedea.</p>

5. Elizaren indarra eta auzotarren fedea

- **Erref:** EIB-701/007
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Abadeek sermoi gogorrek egiten zituzten eta jendeak beldurrez negar egiten zuen. Aste Santuan kanpotik etorritako abade batek ematen zuen sermoia. Elizara joatea bizimoduaren parte zen. "Ariketa espiritual" deiturikoak egoten ziren Arraten.</p>

6. San Migel Txikiren jabea Oregizar baserria da II

- **Erref:** EIB-701/008
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santutxoaren jabeak Jesusa eta Juan dira. Egin dizkioten berriztatzeak aipatzen dituzte.</p>

7. San Migel Txiki santutxoaren irudia

- **Erref:** EIB-701/009
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:17:37. **Bukatu:** 00:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Migel Txikiren santutxoak San Migelen eta deabruaren irudi bat dauzka marraztuta. Letra batzuk ere baditu. Koloreak mantentzen ditu baina ez da inoiz berritu. Aspaldi umeez deabruaren irudia puskatu zuten.</p>

8. Oregizar baserria, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan

- **Erref:** EIB-701/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Oregizar baserri originala gaur egungoa baino pixka bat beherago zegoen. Baserria Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan dago. Korta Bizkaian dago.</p>

9. Andabidea "Santutxu" izeneko zelaitik igarotzen zen

- **Erref:** EIB-701/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:24:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Andabidea "Santutxu" izeneko zelaitik pasatzen zen, Ziortzan hildakoak lurperatzeko. Orduan ez zegoen Aginaga auzoan kanposanturik. Errepideak egin zirenean, andabideek euren funtzioa galdu zuten</p>

10. Andabideak errespetatu egiten ziren

- **Erref:** EIB-701/014
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Auzoko norbait hiltzen zenean, lau lagunen artean bizkarrean ("andan") eramaten zuten baserritik Ziortzako kanposantura. Orain dela hamarkada batzuk arte, andabidea errespetatu egiten zen eta hildakoak eramateko bakarrik erabiltzen ziren.

11. San Migel Txikiren gaineko zerga ordaintzen dute

- **Erref:** EIB-701/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:28:59. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Orain dela urte asko, San Migel Txiki santutxoko teilatua luzatu zuten, egurra gordetzeko txoko bat eraikitzeko. Santutxoaren gaineko zerga ordaintzen dute.

12. Auzotar guztiak Oregizarreko prozesioetara

- **Erref:** EIB-701/018
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Urtean hiru prozesio egiten ziren Oregizar baserritik. Jesusak nolakoak ziren kontatzen du. Auzotar guztiak biltzen ziren.</p>

13. Ezkontza osteko etxe-aldaketa, gurdian

- **Erref:** EIB-701/021
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

<p>Garai batean, ezkontza bat eta gero, baserri batetik bestera etxez aldatzen zena gurdian joaten zen soinu-jotzaileekin. Juanek horrela egin zuela kontatzen du. Gurdian logela janzteko altzari berriak zeramatzan.</p>

14. Aginaga auzoan abade gazteak

- **Erref:** EIB-701/023
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:42:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Prozesioez gain, ez da beste ezer ospatu Oregizarren. Abadeak urtebete edo bi urtetik behin aldatzen ziren eta oso gazteak ziren beti. Juanek abade gazte batek auzoko neska batekin izandako amodio-harremana kontatzen du.

15. Aginagan abadeari hamarrekoa eman behar zitzaion

- **Erref:** EIB-701/025
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:43:21. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Aginagako abadea ondoko baserrian egoten zen apopilo bezala bizitzen. Abadeari ez zitzaion ordaintzen, baina aspaldi, hamarrena ("hamarretik batekoa") ematen zitzaion. Istorio barregarri bat kontatzen du Juanek horren inguruan.</p>

16. Bedeinkazioak, uzta onak izateko eta oinaztuetatik babesteko

- **Erref:** EIB-701/026
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Urtean behin, abadeak lurzorua bedeinkatzen zuen baserriz baserri eta, ordainetan, oilaskoak ematen zizkieten Oregizar baserrian. Bedeinkazioa nolakoa izaten zen kontatzen du Jesusak. San Juanetan, ordea, oinaztuetatik babesteko bedeinkazioa egiten zuen abadeak.</p>

17. Garai batean fede handia zegoen

- **Erref:** EIB-701/027
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:53:24

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Garai batean fede handia zegoen. Beldur handia zegoen. Juanek igandero laguntzen zion arrebari Ermuko goizeko seietako mezara, faroltxo edo lastargi bat eskuetan.

18. Dolu-aldian, mantelina beltzarekin elizara

- **Erref:** EIB-701/029
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:58:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Mezetan eta prozesioetan mantelina edo oihal bat eraman behar izaten zuten emakumeek. Dolu-aldirako mantelina beltz berezi bat erabiltzen zen, askoz oihal lodiagoa zuena.

19. Hileta ezberdinak, hildakoaren aberastasunaren arabera

- **Erref:** EIB-701/030
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:58:34. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Hildakoaren baserrian gaubeilak egiten ziren eta jatekoa ematen zen eta ondraz egiten ziren hildakoaren alde. Hiletak ezberdinak izaten ziren baserriak dirua bazeukan edo ez. Hileta aberatsetan apaiz gehiago egoten ziren elizkizunean eta abestiak ere ezberdinak izaten ziren.

20. Hildakoaren omenezko gaubeila baserrietan

- **Erref:** EIB-701/031
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, gaubeila egiten zen haren baserrian. Auzotarrak joaten ziren errezatza eta jan-edanera. Jesusak bere aitonaren eta amonaren gaubeilak gogoratzen ditu.

21. Hiletak ordaindu ezean, lurperatzerik ez

- **Erref:** EIB-701/033
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Hiletetan, nahiz eta batzuk diruz larri ibili, abadeak ez zuen inoiz kobratzerik barkatzen eta mehatxu ere egiten zuen, hildakoa ez zuela lurperatuko esanez. Abadeek indar handia izaten zuten.

22. Aginagan alkateak zeuden

- **Erref:** EIB-701/034
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:06:19. **Bukatu:** 01:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Garai batean alkatearen irudia zegoen Aginagan. Jesusa eta Juan auzoko alkate izandakoak dira. Garrantzitsua zen auzoko interesak bermatzeko.</p>

23. Lurperatzeak Aginagako elizan

- **Erref:** EIB-701/035
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:08:16. **Bukatu:** 01:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Aspaldi Aginaga auzoko kanposantuaren lekuan eliza zegoen. Gaur egungo elizaren aldarearen azpian lurperatzeak daude. Aldundiak bertan utzi zituen aztarnak.</p>

24. Igandeetan ezin baratzean lan egin

- **Erref:** EIB-701/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:10:32. **Bukatu:** 01:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Garai batean fedea oso handia zen eta mezara nahitaez joan behar zen. Sasoi batean debekatuta izaten zuten igandeetan baratzean lan egitea.

25. Oinaztuak baserri barruraino

- **Erref:** EIB-701/039
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 01:15:39. **Bukatu:** 01:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Nahiz eta oinaztuak eta txingorra egon, beraiek errogatiba eta bedeinkazioetan sinesten zuten. Baserri barrura askotan sartu zaie oinaztua entxufetik edo askatik. Askotan erre zaie irratia. Orain tximistorratza daukate.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com